

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea

Zigoitiko Udal Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran, Kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen berariazko Ordenantza hasiera batez onestea erabaki zuen, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, 49. eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, —legegintzako errege-dekretu horrek Toki Araubideari buruz indarrean diren Xedapenen Testu Bategina onetsi du—, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar eguneko epean, ALHAOn iragarki hau argitaratzen den biharamunetik, jendeak azter dezan eta egokiak jotzen dituen erreklamazioak aurkez ditzan.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udalaren web orrian: www.zigoitia.eus.

Epe horretan ez bada alegaziorik aurkeztu, Erabaki hori behin betiko onetsizat hartuko da.

Ondategin, 2021eko abenduaren 30ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA